

# Gizarte-politiken jarraitasuna eta aldaketa: lanaren balioa Iruñeko Errukietzeko Konstituzioetan

**Joseba Zalakain**

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

**Artikulu honetan, Iruñeko Errukietzeko Konstituzioetan ematen diren lanari buruzko xedapenen berrazterketan oinarriturik, agerian jartzen da nolako balioa eman zioten Etxe hartako ardura-dunek, Etxea zabalik egon zen hiru mendetan zehar, lanaren kontzeptuari gizarteratzeko bitarteko gisa. Konstituzioen analisiak agerian uzten du ezen, maila teorikoan nahiz maila filosofikoan, lana Konstituzioetan goi mailako balioa delakoan aldarrikatzen den arren, alfertasunaren aurrez aurre, ikusmolde horren aplikazio praktikoa askoz ere instrumentalagoa dela, eta zentroaren sostengu ekonomikoarekin lotzen dela oroz gain. Ikuspuntu horretatik –eta Nafarroari buruz agerturiko argudioak Estatuaren osotasunera zabal daitezkeen neurrian–, balegoke esatea uste baino berriagoa dela gaur egun espainiar gizarte-politikek lan-txertatzearen eta gizarte-txertatzearen artean egiten duten paretatzea, eta oso azaleko moduan baizik ez zela XX. mendea baino lehen ageri pobreak artatzeko neurrietan.**

## 1. Sarrera

Ongi izatearen Estatuaren garapena da gizarte-berdintasunaren eta babesaren alorrean XX. mendean egin den lorpen nagusietako bat. Alabaina, gizarte-berdintasunaren eta -babesgabetasunaren ondorioak arintzeko neurriak ez dira mende hone-takoak; aitzitik, Gizadiaren historia osoan zehar aurki daitezke, Antzinako Grezian jadanik, Erdi Aroan edota Aro Berrian. Izan ere, pobretasunaren, haur babesgabeen edo baliabiderik gabeko pertso-na nagusien arretaren alorrean gaur egun bideratzen diren politika-bideen ezaugarrietako batzuk Europan XVI-XVIII mende bitartean ezarritako printzipioen ondorengoak dira. Gizarte-politikek ordu-danik gaur arte eragin dituzten aldaketa nabarmen-gatik ere, politika hauek oinarrian dituzten printzipio batzuk aldagabe iraun dute ordudanik. Zentzu horretan, XVI. mendea dela gizarte-politika modernoaren sorreraren uena azpimarratu izan da, eta garai hartako erreformisten azterketatik abiatu-ta –Luis Vives edo Juan de Roblesen lanetik, adibi-dez–, erraza dela zenbateraino garen garai hartan planteatu ziren erreformen ondorengoak ikustea (Saizarbitoria, 1992).

Ageriko gauza da ordea azken bi mendeotan sustrai-tik aldatu direla XVI-XVIII mende bitartean garatutako gizarte-politikak definitzen zituzten ezaugarrietako batzuk (horietako asko duela gutxi samar, erantsi beharko litzateke). Aldaketa garrantzitsuenen artean, ondoko hauek aipa daitezke:

- Pobreak espiritualki salbatzeko interesa, Erdi Aroan eta Aro Berrian oraindik ere oso nabarmena zena, garrantzia galduz doa, batez ere XX. mendean, gizartearen sekularizazioaren ondorioz gizarte-poli-tikak ere oro har sekularizatzen direnean.
- Aldaketa horrekin estu loturik, egitura erlijiosoeta-tik egitura zibiletara igarotzen da pixkana-pixkana gizarte-laguntzen kudeaketa. Laguntza-tresneria-

ren kudeaketa zuzena bikarioengandik gizarte-lan-gileetara igaro dela azken lau mendeotan onartu behar bada ere, ez da ahaztu behar XVI. mendean jadanik hasten dela gizarte-politiken ‘udaltzea’ (Santolaria, 2003).

- Gizarte-politiken parte handi batek bere ongintzazko, noizbehinkako eta emaitza moduko izatea galdu du –osangintzaren, pentsioen eta hezkuntzaren kasuan bereziki, baina baita ere, eta gero eta gehiago, gizarte-zerbitzuen kasuan– eta eskubide subjektibo bihurtu dira, premiazko egoeran dauden pertsonen botere publikoen aurrean balia ditzaketenak.
- Mendeotan zehar –baina, funtsean, XX. mendearen bigarren erditik aurrera–, laguntzen hartzaileen eskubideen aitortzearen oinarritzen diren ikusmolde filosofikoak eta laguntzazko praktikak zabaldu dira: laguntzak hartzeko eskubide subjektiboa, baina baita ere isilpekotatasunaren, aukera-askatasunaren, profesionalek duintasunez tratatzearen edota intimitatearen eskubidea: unibertsala, eta ez pobre lotsagarri batzuei bakarrik mugatua.

Gizarte-politiken kontzeptualizazioan eta praktikan, zenbait alderdiri dagokionez, gertatu den bilakaera garrantzitsua onarturik ere, esan daiteke haien oinarrian dauden elementu nagusietako bi ez direla ia batera aldatu:

- Laguntzen eta zerbitzuen selektibitatea; hau da, eskumena duten agintarien aurrean premiazko egoeran daudela frogatzen dutenez mugatuak izatea.
- Lanaren kontzeptuaren garrantzia, ez bakarrik tresna terapeutiko gisa eta/edo emandako zerbitzuaren sari moduan, baita ere premiazko egoerak zehazteko funtsezko eragile gisa<sup>1</sup>.

Izan ere, lan egiteko gaitasuna da oraindik ere, gaurko egunean orduan bezala, bidezko laguntzaren eta laguntza eztabaidagarriaren arteko muga, eta bere horretan dirau laguntzen baldintzapekotatunak, laguntzak gehienetan irizpide horri loturik baitzuden<sup>2</sup>. Artikulu honen helburua da, beraz, ikustea zer neurritan den gaur egungo gizarte-politiketan oinarritzeko den printzipio bat –lanaren balioa<sup>3</sup>– Ongizatearen Estatuaren sorrera baino askoz ere lehenagokoa, eta, zehatzago, zer neurritan ageri zen

<sup>1</sup> XV. mendeaz geroztik jada, gizarte-laguntzazko erakundeentzat lana zen pobreak gizarte-bizitzaren eskakizunei egokitzeak tresna nagusia, hala dio Bronislaw Geremek-ek (Geremek, 1989).

<sup>2</sup> Oinarritzeko Errentaren proposamen oraintsu samarrekoa bakarrik urruntzen da argi eta garbi printzipio horietatik, laguntza ekonomiko unibertsal baten –pobreek nahiz aberatsek jaso dezakete–, eta baldintzagabe baten alde egiten duen neurrian, alegia, laguntza hau ez dago lan-merkatuko egoera jakin batekin, ezta gizarteratzeko konpromiso handiago edo txikiago batekin ere lotua. Oraintsu samarrekoa dela diogu, XVI. mendean adibidez, Speenhamland-en, Oinarritzeko Errentaren eskema ez oso diferentek saiatu zirelako; haien emaitzak oraindik ere eztabaidagai dira (Block eta Sommers, 2003).

<sup>3</sup> Lana –edo lanerako ezintasuna– laguntzazko baliabideak esleitzeko funtsezkoa gertatzen den neurrian, alderdi hori azpimarratuko dugu batez ere artikulu honetan, eta alde batera utziko dugu laguntzen selektibitateari dagokiona.

jadanik XVI. mendeaz geroztik ezarritako laguntzazko erakundeetan<sup>4</sup>.

Horretarako, Pobreen Legeen erreformez geroztik –XVI. mendearen erdialdean–, harik eta ideia ilustratuak sendotu eta industrializazioaren lehen aztarnak agertzen hasi ziren arte<sup>5</sup>, fundaturiko ongintzazko erakundeetan sartzeko baldintzak eta haien funtzionamendua adierazten duten testu zaharretara jo daiteke. Abiapuntu hori hartuta, testu honetan Iruñeko Errukietxeko Konstituzioak aztertuko dira batez ere, zeina 1706an zabaldu baitzen nafar hiriburuan, XVIII. mendean zehar Iberiar Penintsulan sorturiko gainerako Errukietxeen ildo beretik.

Testu horiek, une jakinetako erakundearen antolamenduaren ereduak ez ezik, erakunde horren sustatzaileak eta babesleak mugiarazten zituen espiritua eta filosofia ere islatzen dutela da aztergai gisa Konstituzioak aukeratu izanaren arrazoia. Errukietxean bertan, gainera, Etxea sortu zenez geroztik aldarrikaturiko Konstituzio guztiak daudelarik –aurrenekoa, 1706koa, sei bider berriztatua; 1747koa; 1807koa; 1831koa; 1860koa (1873an berriztatua); 1897koa; 1922koa; 1924koa; 1930ekoa; eta 1941ekoa, 1963an berriztatua, eta 1986, 1992 eta 1997ko Barne Erregimeneko Araudiek ostera ere berriztatua–, aise analiza daiteke nola ia 300 urtez –paperaren gainean behintzat– pobreen gizarteratzeko tresna gisa hartu den lanaren balioa.

Artikulu hau, hortaz, eta bereziki, Iruñeko Errukietxeko Konstituzioaren irakurketan eta analisisian oinarritzen da. Izan ere, Konstituzio horiek Etxean bertan daude gordeak, artxiboetan, eta Camino Oslé irakasleak transkribatu ditu. Analisia egin ondoren, beste egileek esandakoarekin alderatuko dira lortutako konklusioak, lanaren eta gizarteratzearen arteko harremanari dagokionez, espainiar gizarte-politiken nolabait esateko ‘historiaurrean’.

## 2. Lana Errukietxeko Konstituzioetan

### 2.1. Lanak oinarritzeko eginkizuna betetzen du...

Lanak Errukietxearen oinarri ideologikoetan betetzen zuten eginkizun berreroslea –gizarteratzailea

<sup>4</sup> Santolariaren arabera, pobreak babes-etxeetan hartzeko mugimendua –ospitale orokorretan, errukietxeetan, txiro etxeetan, *workhouse*etan– XVI. mendeko pobreen gaineko politika berrien aplikazioaren bigarren unea izan zen. Aurreneko kasuak mende horren bigarren erdian hasieran gertatu ziren, nahiz eta zabaldu, XVIII. mendean zabaldu ziren. Mugimendu hori Mendebaldeko Europa osoan gertatu zen, eta haren egitura instituzionalek eta eginkizunek, gero eta arinduagoak eta espezializatuagoak badira ere, XIX. mende osoan zehar eta XX.aren parte handi batean iraun dute (*Hilero Eguneratuz*, 53. zkia.).

<sup>5</sup> Pentsalari ilustratuen kezka eta hautabideak ez dira XVI. mendeko erreformistek planteatu zituztenen oso-oso bestelakoak. Ibáñez Fernándezek dioenez, espainiar idazle ilustratuek pobretasunaren auziari heltzen diotenean, gehienak bat datoz bi puntu nagusitan: egiazko pobreen eta pobre faltuen arteko bereizketa egitea, eta txiro etxea pobretasunaren eta eskaleen arazoaren konponbide gisa (Ibáñez Fernández, 1999).

esango genuke gaur egun-, lehen Konstituziotik bertatik ageri da jada. Lehen Konstituzioa 1706koa da, eta honela dio zazpigarren artikulua:

*“Que en habiendo disposición de matheriales en que poder hacer trauaxar a los hombres y Industriarlos en pelaireria, u algún otro oficio en que puedan trauajar tenga cuidado el administrador de que se apliquen a ueneficio de ella, Como ttambien las mugeres a las cuales las aia de cuidar y hazer trauajar suama o Madre en lo que sea más util. Y el empleo o espezie de trauajo de Cada Uno, sea según suposibilidad, y la aplicación y calidad de el según seordenare por el admisor. a los hombres y por la ama a las mugeres”.*<sup>6</sup>

Zentzu berean, hasieratik bertatik oso argi dago lanik ezin egin duten pertsona pobreen kasuan bakar-bakarrik zentzua duela Errukietxera jotzea. Egiazko pobreak, lanik egin ezin dutenak dira, haiek besterik ez. Halaxe adierazten da orobat aurreneko Konstituziotik hasita. Hona zer adierazten duen 9. artikulua:

*“(...) Y en quantto a rezeuirse a los otros pobres, así hombres Como mugeres sea conorden de qualquiera de los señores Superintendenttes, quienes se Informaran de la uerdadera pobreza de cada Uno Y de que no pueden ganar de Comer con el trauajo de sus personas, pues estta Casa solo ade seruir a los verdaderamente pobres Y que no pueden manttnerse con el trauajo de sus manos ni esttan para seruizio eceptto en quatto a los estudiantes que enestos basttara solo la pobreza en la forma preuenida”.*

Premiazko egoeran dauden gainerako pertsonak, nagikeriaz hirian alderrai eta eskean dabiltzanak, ez dira Errukietxean hartuko, eta, horrez gainera, hiritik egotzi ere egingo dituzte. Egiteko hori aguazilaren esku dago:

*“Ittem que el ministro que asiste y asistiera en dha Cassa nombrado por la ciudad durante su Uoluntad con titulo de Aguacil para recoger a los pobres que andan ostiatin en esta Ciudad y sus Extramuros tenga especial cuidado de Cumplir con este encargo de recojerlos a los pobres que Uerdaderamente fueren pobres, y a los que no lo fueren, y que por ociosidad andan bagando y pidiendo limosna los saque y eche fuera de la Ciudad (...)”.*

Lanak –edo, hobeto esanda, lan egiteko gaitasuna izateak– duen funtsezko eginkizun hori, esplizituki Errukietxean laguntza jasotzeko eskubidea ezartzen

<sup>6</sup> Printzipio-deklarazio hori ez da 1777an Gasteizko txiro etxeari egotzen zitzaionaren oso bestelakoa: *que los pobres vecinos vivan esentos de necesidad, y ocupados en honestos exercicios, según lo permitieren la salud y las fuerzas de cada uno.*

duen faktore gisa, lausotuz doa ordea ondorengo konstituzioetan, haiek ez baitute jadanik baldintza hori esplizituki aipatzen. Hala, bigarren Konstituzioa (1747) ondoko hau seinalatzen du:

*“Que la admisión de los Pobres aia depender del consentimiento de toda la Junta, ó, de su maior parte, y que para su admisión, tenga pnte. El que ha de ser Uerdaderamente pobre, destituido á poder aspirar al amparo de Padres, y Parientes que tengan obligación á sustentarlo, y que sean preferidos los de esta Ciudad a los forasteros, y que no se reziban Pobres que padezcan achaques contajiosos, ni enfermedad auitual (...)”.* Bigarren Konstituzioa, Batzordea, 8. Kapituluua, 1747<sup>7</sup>.

Gero, hamarraldi askoan, antzera jasotzen dira Errukietxean sarbidea izateko baldintzak, baina ez da modu kategorikoan eta esplizituan aipatzen lan egiteko ezintasuna, sarbidea izateko baldintza delakoan.

*“Que la admision de pobres haya de pender del unanime consetimiento de la Junta ó de su mayor parte, teniendo presente que sean verdaderamente pobres (destituidos de poder aspirar al amparo de padres ó parientes que tengan la obligación de sustentarlos) naturales de la Ciudad ó avecindados en ella con residencia de diez años (...)”.* Laugarren Konstituzioa, Batzordea, 10. Kapituluua, 1831.

*“Los individuos que se admitan deberán ser verdaderamente pobres destituidos de poder aspirar al amparo de padres ó parientes que tengan obligación de sustentarlos así como naturales de la Ciudad ó avecindados en ella con residencia de 10 años”.* Bostgarren Konstituzioa, Batzordea, 7. Kapituluua, 1831<sup>8</sup>.

*“Los individuos que se admitan deberán ser verdaderamente pobres, destituidos de poder aspirar al amparo de padres o parientes que tengan obligación de sustentarlos y ser naturales de esta ciudad ó llevar empadronados en la misma los menos los diez ultimos años anteriores á la fecha de solicitud”.* Seigarren Konstituzioa, Pobreen onarpenaz, 162. artikulua, 1897.

*“Los individuos que se admitan deberán ser verdaderamente pobres, destituidos de poder aspi-*

<sup>7</sup> Mereziko luke azterketa xehe bat egitea, jakin ahal izateko hiru printzipio haiek –famiako gainerako kideen derrigorrezko erantzukidetasuna pertsona babesgabeek eusten edo hartutako zerbitzuak ordaintzen, eritasun jakin batzuk dituzten pertsonen zerbitzuetarako sarbide mugatua, eta atzeritarren edo/eta ez egoiliarren sarbide mugatua– zenbateraino dirauten gaurko gizarte-politketan.

<sup>8</sup> Etxeko arauen erreforma horretan bertan, etxetz etxe emandako laguntzei erreferentzia egiterakoan, espreski aipatzen da ordea *“solo podrán optar á esta clase de socorros las personas ó familias que no puedan admitirse en la Casa, y que acrediten ser vecinos de esta Ciudad con residencia de 10 años y que por su edad o padecimientos no puedan subsistir con el producto de su trabajo, careciendo además de parientes que los amparen”.* Eskakizun hori bera zehazten da 1897ko Konstituzioiko zenbait artikuluetan, zeinak salgaietan edo eskudirutan eskainitako laguntzei buruzkoak baitira.

*rar al amparo de padres o parientes que tengan obligación de sustentarles y ser naturales de esta ciudad ó llevar empadronados en la misma los menos los diez ultimos años anteriores á la fecha de solicitud".* Zazpigarren Konstituzioa, Pobrean onarpenaz, 155. artikulua, 1922.

## 2.2. ... baina erakundearen sostenguari egiten zaion ekarpenean zentratuturik

Zenbait gogoetak, bestalde, lausotu egiten dute lana, egiaz, Errukietzeko arduradunentzat, eta Etxearen historian zehar, lehen mailako balioa delako ideia<sup>9</sup>: lanaren eginbeharraren justifikazioa gehiago bideratzen da Etxearen mantenu ekonomikoari laguntzera –haien finantzaketa bermatua ez zegoen garai batean–, lanaren balioa berez azpimarratzen baino areago. Lehen Konstituzioaren Laugarren Erreforma, lehen idatzaldia egin eta hamahiru urte geroago egin zena, zentzu berean osatua da, hau da, beharrezkoa dela dio lanaren betebeharra ez ahaztea –izan ere, pixka bat ahaztuta zen agian–, eta Fabrikaren jardueraren beharra azpimarratzen du Etxeari eutsi ahal izateko. 12. artikulua hala dio:

*“Que por quanto sea experimentado ay necesidad de uisitar con frecuencia a los que trauajan en dha, Cassa, por negarse, Muchas Ueces, a hacer la lauor, que con poca fatiga pudieran ejecutar, para poner el remedio deuido, aya de subir el Capellán por mañana y tarde a los pobres, que trauajan, y sino ejecutan lo que se les amandado, hacerselo hacer, dejando el tiempo que por mañana y por tarde deua asistir al Celo del Capellan, quien no se le deue dudar asistira lo mas del tiempo que pueda con conocimiento de lo mucho que importa este cuidado para la manutención de la cassa”.*

*“Que asi mismo como peculiar obligación suya [del Fabricante de la casa de Misericordia] tenga gran cuidado en que los Jornaleros executen perfectamente la obra de cardar, tejer, tundir, y perchar, según el ministerio á que cada uno esta destinado y sino lo hizieren como de deue, los corrija, sin contemplacion alguna, antes bien con todo rigor, y sino bastare, dé quenta al administrador, sin disimular en esto, la menor omision, para que tome la prouidencia deuida, por pender de su cuidado, la manutenzn. dela Fabrica, y de estael alibio dela Casa”.* Bigarren Konstituzioa

<sup>9</sup> Alabaina, 1747ko Konstituzioan ‘masima principalisima de esta Casa’ bezala aipatzen da honakoa: ‘tener especialissimo Cuidado, en que con motibo de recreacion, dibersion, ni otro pretesto, se mezclen hombres y mugeres, sino que asi en estos, como en los demas concursos, aia separación de unos y otros, y que cuando biere no cumplen con los empleos, y ocupaciones que sedestinan, procure corregirlos, y hacer no malbaraten el tiempo el grauissimo perjuicio dela Cassa que los mantiene, y exortarlos áquetrauejen, y tengan entre sí, asi los hombres como mugeresm la maior paz, quietud y union (...)’.

(1747), Errukietzeko Fabrikatzailearen Konstituzioak<sup>10</sup>, 3. kapitulua.

Lanak Etxearen finantzaketa-iturri osagarri gisa duen garrantzia agerian geratzen da halaber zenbait elizkizunetara ez joateko bertako batzuek zuten baimen berezian, lanean ari zirenek hain zuzen, helburu jakin batekin: “no pierdan labor, de la que pende la manutencion de esta Cassa”<sup>11</sup>.

Garai jakin batean erakundeak izan zuen behar-diak ere izan zuen zerikusirik lanaren alorrarekin, baina ez gizareratze-tresna zelakoan, baizik eta lan-jarduerak dakartzan bitarteko ekonomikoie zegoen neurrian. XIX. mendearen hasieran, lehen Konstituzioa idatzi eta handik ehun urtera, zenbait ilustraturen ideiak zabaldu zirelarik eta herrialdea oraindik industrializatzen hasi ere gabe, hirugarren Konstituzioak (1807) Etxean dagoen ehungintzaren produktibitate eskasari leporatzen dizkio, besteak beste, bertan sumatzen diren hondamena eta atzerapena. Gogoeta horretatik abiatuta, berrikuntza honetan bideratu nahi diren erreformen artean daude Fabrika, Tindu Bulegoa eta Bolategia eguneratzea, kudeaketa-formulak hobetuz.

Konstituzio horretan, zeina laburra baita eta ia osorik Etxearen produkzio-alderdiei eskaintzen baitzaie, berriz ere azpimarratzen da industria horietan lan egin behar dutela babes-etxeokoe (nahiz eta, aurreneko aldiz, modu esplizituan egindako lanarengatik sariren bat jaso dezaketela adierazten den):

*“El director deberá ocupar en la Fabrica ó, labores pertenecientes a ella a todos los pobres de ambos sexos que hubiere en la Casa con aptitud pa. Algún trabajo, abonado á ellas lo que fuese justto con proporción álo que se pagare álos Jornaleros y Oficiales de fuera, todo ello con acuerdo y aprobación de la Junnta”.* 24.7. artikulua

Etxean egiten den lan produktiboaren garrantzia are gehiago azpimarratzen da konstituzio batzuetan, 1747koan edo 1831koan adibidez, administratzaile, kapilau, atezain, aguazil eta Karitateko Ahaizpei Fabrikako Maisuaren eta Bolazainaren irudiak erantsi zitzaizkienean<sup>12</sup>.

<sup>10</sup> Lanak Etxearen finantzaketa-iturri moduan duen garrantzia ageriko seinalea da nola 1747an jadanik kapilauarengandik maisu fabrikatzailearengana igaro zen langileen errendimendua bermatzeko betebeharra.

<sup>11</sup> Lanak finantzaketa-iturri moduan duen ahalmenean zenbait duen konfiantzak biziki kontrastatzen du Geremek-en ideia batekin; haren arabera, garai hartako ongintzako erakundeetan, frantsetan behintzat, lanak ez zuen inolako onurarik ekartzen, aitzitik, kostua zekarren. Haren helburua, beraz, huts-hutsik hezkuntzazkoa zen, eta zerikusi gutxi zuen laneskuaeren esplotazioarekin (Geremek, 1989).

<sup>12</sup> Etxeei eusteko industria-jarduerak zuten garrantziaren azterketa xeheago bat egin ahal izango litzateke haien ekonomiazko eta kontularitzazko dokumentazioan oinarrituta, baina horiek ez dira Konstituzioetan jasotzen.

### 2.3. Lana bai, esplotazioa ez

Bestalde, harritzekoa gertatzen da –eta agian, hori dela-eta, erlatibizatu egin behar da lana balio nagusizat hartzeko joera– esplizituki eta ia beti modu berean azpimarratzen dela mendeetan zehar lana babes hartuen posibilitateei egokitu behar zaiela. Konstituzioetan, hori bai, ez dirudi inolako esplotazio-asmorik islatzen denik.

*“Que estando, (excepto en lo espiritual) a cuidado del adminisor. Todos los pobres, y la ama de dha Cassa Cuide de que cada uno trauaje en beneficio de la Cassa, lo que Comodamente pueda”.* Lehen Konstituzioa (1717), Laugarren Erreforma, 19. artikulua.

*“Item que como queda preuenido el admsinor. Aia de cuidar quelos pobres, y los que asistieren a la Pelairia trauajen según su actiuidad en los ejercicios que supieren aueneficio dela Cassa”.* Lehen Konstituzioa (1725), Bostgarren Erreforma, 32. artikulua.

*“Que el Administrador aia de cuidar que los hombres trauajen, y se ocupen continuamente con los ofizios, ocupaciones y trabaxos que seles encargare, que hande ser proporcionados ala disposición y posibilidad de los pobres”.* Bigarren Konstituzioa (1747), Errukietxeko Administariaren Konstituzioak, 9. kapitulua.

*“Cuidará el administrador quee los hombres trabajen continuamente en los oficios y ocupaciones que se les encargare, que serán proporcionadas á la disposición y posibilidad de cada uno”.* Laugarren Konstituzioa (1831), Administraria, 8. artikulua.

*“A los niños que pasan á la Pelayria de principiantes, les ha de enseñar á ilar con perfección [fabrikako maisua] no obligandoles a trabajar mucho, sino bien, hasta que se hallen instruidos y corrientes en esa labor, en cuyo caso la prudencia le dictara la tarea que debe señalar á cada uno”.* Laugarren Konstituzioa (1831), Fabrikako maisua, 6. artikulua.

*“Cuidará [administraria] que los hombres trabajen continuamente en los oficios y oocupaciones que se le encargare, que serán proporcionados á la disposición y posibilidad de cada uno”.* Bostgarren Konstituzioa (1860), Administraria, 10. artikulua.

*“Cuidará el Administrador que los hombres trabajen continuamente en los empleos y ocupaciones que se les encargare, que serán proporcionados á la disposición y posibilidad de cada uno”.* Seigarren Konstituzioa (1897), Administraria, 45. artikulua<sup>13</sup>.

*“Todos los asilados tienen la obligación de ejecutar aquellos trabajos que en relación con sus aptitudes se les encomiende por la Comisión ó empleados de la Casa”.* Seigarren Konstituzioa (1897), Babestuen eginkizunak, 179. artikulua.

*“Todos los asilados tienen la obligación de ejecutar aquellos trabajos que en relación con sus aptitudes se les encomiende por la Comisión ó empleados de la Casa. Para mayor estímulo al trabajo, la Comisión podrá gratificar a los que se hagan acreedores de ello por su aplicación y aptitudes”.* Zazpigarren Konstituzioa (1922), Babestuen eginkizunak, 172. artikulua.

Xedapen hauek bat datoz XVIII. mendeko tratatuidazle ilustratuek aipatzen dituztenekin. Izan ere, ilustratuek txiro etxetako lanaren betekizuna gogoan hartzen dutenean, erakunde hau bertan babes hartuak bere indarrei egokitzen zaien lana bilatuko duen leku gisa ulertzea proposatzen dute, eta inoiz ez haiek itxita edo zigortuta edukiko duten leku baten moduan (Ibáñez Fernández, 1999). Bat datoz halaber Miguel Giginta katalanaren ideiarekin, zeinak Errukietxeak sustatu baitzituen Italian eta Iberiar Penintsulan; pobre guztiak lan baliagarri batean enplegatu behar direla haietan zioten, baina beti ere haien indarren eta gaitasunen arabera (Geremek, 1989).

Eguneko lanaldia, alabaina, ez zen inondik ere laburra, Etxea zabaldu eta lehen urteetan behintzat.

*“Que todos los oficiales, Aprendizes, niños y niñas, quetabajan enla Pelairia, ayan de Lebantarse, y tomar luego la Labor, entiendo de Ibierno alas cinco dela mañana, y en Uerano alas quatro, y despues demedio dia bolberan a tomarla asta que sehaga señal pa. el rosario”.* Bigarren Konstituzioa, Errukietxearen Gobernurako Konstituzioak, 1. kapitulua, 1747.

Etxeko arduradunek, gainera, ahalmenak zituzten alferren edo ez-emankorren aurrean beharrezko diziplina ezartzeko.

*(...) Y se le encarga tambien [administrariari] cuide de que los siruientes dela Cassa y sus Pobres trauajen á beneficio dela Cassa, ensus Labores, y empleos respectibos, y que si conociere alguna omisión en ellos, la corrija, y sino bastare, les quite el uino, por el tiempo que le pareciere, ó, la Razion, y no siendo suficiente este castigo, pueda mandarlos poner en el Cepo por el tiempo que la culpa mereciere, y su prudencia le dictare (...)* Bigarren Konstituzioa (1747), Errukietxearen Administariaren Konstituzioak, 29. kapitulua.

Etxe barruko lana, beraz, lan behartuen eta ohiko lan-jardueraren tarteko zerbait dela ematen du. Zentzu horretan, lanaren ordainsaria, ikusi dugunez, 1747tik aurrera hartzen da kontuan. Mende bat igarota, berriz ere esplizituki aipatzen da aukera hori,

<sup>13</sup> Xedapen hau aldagabe ageri da 1922ko zazpigarren Konstituzioko 44. artikuluan, 1924ko 45. artikuluan, 1930eko Konstituzioko 45. artikuluan, 1930eko Konstituzioko 45. artikuluan, eta 1941eko 49an.

zeina, nolahi ere, beti ere Etxeko arduradunen nahieraren mende geratzen baita. Ordaina jasotzen duten pertsonak, gainera, ezin dute nahi duten bezala erabili.

*“Cuidará [Udal Ongizate Batzordeak] también de dar impulso y desarrollo creciente a las industrias y talleres de la Casa por ser éstos los más útiles a la vida y bienestar de los acogidos”.* 1897ko Konstituzioa, 2. kapitulua, 11. artikulua.

*“A los operarios que más se distinguen por su aprovechamiento podrá gratificárseles con alguna cantidad en metálico. Si estas gratificaciones llegaran a ser de alguna importancia, ya por el número de industrias del Asilo, ya por los muchos acogidos que resultaren premiados, ó por otras circunstancias, la Comisión remitirá por medio del Administrador dichas cantidades con la debida separación de nombres a la Caja de Ahorros Municipal, de donde no podrá sacarse sin permiso de la Comisión”.* 1897ko Konstituzioa, 2. kapitulua, 12. artikulua<sup>14</sup>.

Xedapen bera ageri da Konstituzio horren 173. artikuluan. Horren arabera, babes harturiko umeei, Etxetik kanpo enpleguren bat hartzen baldin badute, Batzordeari baimena eskatu beharko diote lan horretan lortutako diru kopuruak erabiltzeko.

Iruñeko Errukietxean egoera, itxuraz, hobea da –ez ordea guztiz bestelakoa– garai hartako beste erakundeetako egoerarekin alderaturik. Haietan, Geremek-en arabera, askatasun faltak eta lan hertsatuak bat egiten dute politika sozial antzeko batean, eta bai gaizkileei, bai lanik gabeko pobreei bideratzen zaizkie (Geremek, 1989). Frantziako ospitale orokorretan, adibidez, zaindarien izendaturiko lana egiten ez zuena, aurreneko aldirian, janari-errazioa gutxiagotuz zigortzen zen, eta bigarren aldirian, ospitaletik kaleratu eta kartzelara bidaltzen zuten, atzerritar eskaleekin. Han ere, kanpoan enplegatzen ziren pertsonak ordainsariaren zatirik handiena konfiskatzen zitzaizkien.

Frantziako ospitale orokorretan, bestalde, lan-salbuesteak Iruñean baino gauza zailagoa ematen zuen: 1666ko dokumentu baten arabera, “erresistentzia mota oro gorabehera, Ospitaleko Etxeetan inon ez dago egitekorik ez duen pobrerik, ez badira gaixo larriak edo guztiz elbarriak direnak. Denak daude lan egitera behartutak baita zaharrak, ezin duak edo perlesiadunak ere, eta lan orokor hori sartu denez geroztik, diziplina gehiago, ordena gehiago eta jaiera gehiago dago pobreen artean” (Geremek, 1989).

#### 2.4. Lan-txertakuntzaren kontzeptua argiago ageri da XIX. mendearen erdialdean...

Bosgarren Konstituzioa arte itxoin beharra dago, aurreratua ordurako XIX. mendea eta Etxea sortu eta mendi-erdi geroago, hura kudeatzen duen araudian lanari buruzko erreferentzia sistematikoagoren bat aurkitzeko, lana gizarteratzerako tresna edo zubi gisa harturik. Kasu horretan, etorkizuneko ogibide baterako prestakuntza Etxearen ekonomiari eusteko balio duen helburu osagarri bat da.

*“Cuidará [Batzordea] así bien de fomentar y mejorar en lo posible los talleres de palairía, Zapatería, Sastrería y fabricación de Lienzos que hoy ecsisten en la Casa, estimulando la aplicación en los operarios con pequeñas asignaciones pecuniarias que se dará los Domingos a los más aprovechados, á fin de que por un parte se iobtengan beneficios para la Casa por otra se haga mas lleadera por los acogidos su permanencia en ella, y que más tarde sean estimados teniendo un oficio útil á que dedicarse”.* Bosgarren Konstituzioa (1860), Batzordea, 19. artikulua.

1860ko Konstituzioan ezarritako aldaketa agerikoago gertatzen da, jadanik XX. mendearen hasieran, seigarren Konstituzioaren lehen artikuluan (1897), hura baita denetan handiena eta sistematikoena, eta Etxeak babes hartuekiko zituen betebeharrak esplizituki jasotzen dituen aurrenekoa da gainera.

*“El objeto de la Santa Casa de Misericordia de Pamplona es proporcionar albergue y alimentación a los pobres desvalidos de ambos sexos que reúnan las condiciones exigidas en este Reglamento; asistiéndoles en sus enfermedades y dando á los jóvenes la instrucción y educación convenientes para que más adelante puedan ser colocados en artes, oficios y carreras”.* Iruñeko Hiriko Errukietxe Santuaren Araudia (1899), 1. kapitulua, 1. artikulua<sup>15</sup>.

Zentzu berean, ondorengo konstituzioetan ondoko ardura hau ematen zaio administrariari: “Eskolako eta lantegietako maisuek babes hartutakoaren gaitasun berri eman behar dute ogibide, enplegu eta egitekoei dagokienez, eta Batzordeari behar den denboraz jakinarazi”; hau da, iraganean baino nabarmenagoa da Etxeko egoiliarrek gizarteratzeko dituzten aukerei buruzko interesa.

Era berean, konstituzio honetan eskolen antolamenduak eta lantegi-maisuen eginkizunaz oso arau xeheak ematen direnez gero, badirudi garai honetan –XIX. mendearen bukaeran eta XX. hasieran– helburu pedagogiko handiagoa ematen zaiola Errukietxeari, eta orobat garai horretan garrantzi handiagoa hartzen duela egoiliarren lan-prestakuntzak eta prestakuntza akademikoak.

<sup>14</sup> Xedapen hau aldagabe ageri da 1922ko zazpigarren Konstituzioari 12. artikuluan.

<sup>15</sup> Xedapen hau ia aldagabe ageri da 1922, 1924, 1930, eta 1941eko Konstituzioetan.

## 2.5. ... baina XX. mendearen erdialdeaz geroztik desagertzen dela dirudi

XIX. mendeko Konstituzioetan azaltzen zen egoiliar gazteenen eskola-prestakuntza eta Lantegiaren funtzionamendua azpimarratu nahi hark, behera egiten du itxuraz XX. mendean zehar. Izan ere, 1924tik aurrera desagertu egiten dira eskola- eta lantegimaisuen aipamenak –horren ugariak 1897an–, eta lan egiteko betebeharrak errutinazko moduan islatzen da beti haietan. Bestalde, 1941etik aurrera egiten den aipamena dela-eta, eta batez ere 1961eko Konstituzioan egiten dena aintzat harturik, finantza-keta-iturri erantsi bati buruz hain zuzen –Zezen Plaza berria–, badirudi Etxeko industriek garrantzia galdu zutela euskarri ekonomiko gisa.

1961eko Barne Erregimeneko Araudiaren Proiektuak adierazten du, bestalde, bazela jadanik ordurako egoiliar talderen bat –hirugarren solairuko andreak– “gainerakoak bezala, lan-erregimen baten mende nahitaez ez dagoena”. Hori dela-eta, hau azpimarratzen da: “ahal dutenek arropa lizatsen edo arropa pasartzatzen beharko dute entretenitu, hori ez baita inondik ere haietaz lotsabidea, beren buruen zerbitzurako beharrezkoa izateaz gainera”. Gizonei dagokienez, “berne ahalmenentzat egokia den lanen batean ari daitezkeenek, lan hori egin beharko dute”. Lantegien egitekoak, nolana ere, bere horretan jarraitzen du oraindik urte horretan, nahiz eta uzten zaien langileei kanpora ateratzen, igandeetan ez ezik, baita egunero ere, arratsaldeko zazpietatik hamar arte.

## 3. Eztabaida eta konklusioak

Iruñeko Errukietxeetako Konstituzio desberdinek lanari buruzko xedapenen berrikuste honek ondo agerian uzten du, ia hiru mendeko funtzionamenduen ondoren, haien arduradunek nolako garrantzia eman zioten lanaren kontzeptuari. Kontzeptu horrek baditu gutxiena hiru oinarri eta motibazio diferente:

- Lanaren etikaren indartzea, Erdi Aroaren ondoren Europan garatutako edo erreformatutako babes-erakundearen eta txiro etxeen multzoaren ildo berezik, eta haien gaitasuna trebatzeko eta gizarteratzeko tresna gisa.
- Etxearen funtzionamenduen finantzaketa, limosnekin, emaitza pribatuekin eta udal-aurrekontuekin eskuratutakoaren osagarria baita lana.
- Laguntza zilegitasunez har dezaketean eta ezin har dezaketean pobreen arteko bereizketa, oroz gain lanerako duten disonibilitatearen ondoriozkoa dena.

Konstituzioen testuek adierazten dutenez, aurreneko alderdia –lanaren etikaren gaineko doktrinartzea, laburturik esateko–, oso gutxi ageri da zentroaren kudeaketa gidatzen duten xedapenetan; bigarrena berriz askoz ere gehiago ageri da, eta hirugarrena, segur aski, hasieran bai, baina gero ez da esplizituki

zehazten, ulertuzat ematen baita. Esan daiteke beraz, ezen, maila teorikoan edo filosofikoan lana alfertasuna baino balio garrantzitsuagoa dela aldarrikatzen bada ere, lanaren aplikazio praktikoa askoz ere instrumentalagoa dela<sup>16</sup>.

## Gaur egun laneratzearen eta gizarteratzearen artean egiten den parekotasuna uste baino berriagoa dela pentsa daiteke

Interes falta erlatibo horrek biziki kontrastatzen du Iruñeko Errukietxeak funtzionatu zuen lehen hamaraldietan Espainian ere zabaldu zen pentsamolde ilustratu eta merkantilistarekin, eta, batez ere, ekonomista ilustratuek txiro etxearen alde egin zuten apustu erabakiarekin, pobretasuna murrizteko eta lanaren pedagogia zabaltzeko bide egokia zelakoan (Gracia Cárcamo, 1993). Zentzu horretan, bereziki garrantzitsuak dira Iruñeko Errukietxearen fundazioaren urteetan bizi izan ziren bi ilustratu bizkaitarrak –Gerónimo de Uztárizek eta Nicolás de Arriquirabarrek– egindako ekarpenak. Beren lanetan, garai hartako eskale ugariak txiro etxeen bidez modu produktiboan erabiltzeko premia defendatu zuten; izan ere, txiro etxeetan “ez herrena, ez itsua ez dira salbuespena, eta egin dezaketean lana egiten dute” (Gracia Cárcamo, 1993<sup>17</sup>). Uste izatekoa da Iruñeko Etxeko sustatzaileek haien interes eta filosofia bera zutela, nahiz eta, Bizkaiak ordurako industrializazio maila altuagoa zuelarik, ulergarriagoak egin ilustratu hauen premia produktibistak. Konstituzioen irakurketak orobat jartzen du agerian, modu gutxi-asko lausoan, Etxean ezarritako lantegien ekoizpen-ahultasuna, eta, ildo beretik, haien bideragarritasun ekonomiko eskasa. Zenbait unetan industria-azpiegiturak garrantzitsua ematen badu ere, ikusten da oro har kexak etengabeak direla haien jardueraren beheraldiaz.

<sup>16</sup> Horren beste zantzu bat izango litzateke ikustea nolako kontraste handia dagoen lan egiteko eginkizunaren antolaketaren – aski eginkizun labur-zehatza ia Konstituzio guztietan –, eta babes hartuen betekizun erlijiosoan edo Batzordeko kide bakoitzaren erantzukizunaren eta ahalmenen definizio xehearen artean.

<sup>17</sup> Egile honen arabera, Gerónimo de Uztárizen argudioek eragin erabakigarria izan zuten mende hartako pentsamolde ilustratuaren garapenean. Haren alfertasunaren uko erabatekoa eta produktioaren obsesioa ondorengo pentsamendu ekonomikoan etengabe agertuko diren indar-ildoak izango dira, eta, era horretan, txiro etxeen sustapena, eta baztertuen lan behartua onartu egin zen gizarte-arazo honen erremedio terapeutiko gisa. Arriquirarren kasuan, eskaleen arazoa konpontzeko, “no hay medio más eficaz que el perfeccionar el sabido arbitrio de los hospicios públicos”. Ilustratu guztiak ordea ez ziren horren merkantilista agertu: Valentín de Forondak, adibidez, honako hau defendatu zuen: “*hospitales en que hallen alivio en sus enfermedades los infelices y casas de Misericordia en que encuentren un recurso todos los que no pueden mantenerse por sus achaques, por vejez ó por falta de ocupaciones*” (Gracia Cárcamo, 1993).

Azken finean, nahiko urriak dira Iruñeko Errukietxeetako Konstituzioetan lanari buruz egiten diren erreferentziak; aipamen errutinazkoak dira, eta baita fosilizatuak ere zenbaitetan; ez dute beti gaiari buruzko interes egiazkorik adierazten (auto-finantzaketarako ahalmenarekin zerikusia duenean izan ezik agian). Konklusio hau, dudarik gabe, Konstituzioek berek dokumentu-iturri gisa dituzten mugen ondorioa izan daiteke; alegia, ez dute hitzez hitz jasotzen –berez arau-emaileak izan arren– Etxearen funtzionamenduak oinarri-oinarriaren duen filosofia, uanean-uean babesleen arreta eskatzen duten antolamendu- eta arau-alderdiak baizik. Posible da orobat –ez dirudi ordea gertagarria ematen– horren funtsezkoa, horren gauza jakina izatea, Errukietxearen arduradunentzat lanaren balioa, non ez baitzen beharrezkotzat ere jotzen auzi honi Konstituzio desberdinetan erreferentzia xehea egitea.

Gerta daiteke halaber lortu den inpresioa egiazkoa izatea, eta, egiazki, Errukietxearen eguneroko funtzionamenduan ez da lana, ezta lanaren etikaren zabalkundea ere, aintzat hartu –XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen hasieran– gizarteratzeko tresna moduan. Interes falta horren zergatia, agian, Errukietxearen egiazko helburua beste bat zela da: pobreak itxita edukitzea, eskaleak kaleetatik ateratzea, errukietxera bidaltzeko mehatxu hutsa<sup>18</sup>, edo, bestela, ongintzaren eta karitatearen praktika, eta landatikako ihesak edota hurrenez hurreneko krisi ekonomikoek biziagoturiko gizarte-arazo baten konponbidea.

Interes falta hori, nolana ere, bat dator Geremekek ‘Errukia eta urkamendia’ lanean planteatzen dituen gizarte-pentsamenduaren eta gizarte-errealitatearen arteko asinkroniaren gaineko tesiekin, zeinak orobat aplikatu dakizkieke Juan Luis Vivesen pentsamenduari eta XVI. mendeko pobreen legeen erreformei (Saizarbitoria, 1992)<sup>19</sup>. Geremeken arabera, pobreen enplegua, izan borondatezkoa nahiz behartua, Flandriako lurretako merkatuaren ezaugarri zen langile-eskariaren elastikotasun aski handia supo-

satzen du, baina ez da egokia espainiar lan-merkatuaren absortzio-ahalmen urriarentzat. Desegokia zen XVI. mendearen erdialdean, baina baita XVIII. mendean, XIX. mendean eta hein handi batean baita XX. mendean ere, erants daiteke.

Orobat esaten du Geremekek ezen “eskaleen kontzentrazioa eta pobreak itxita edukitzea oso estu lotua dago lanaren ethosaren berrespen frogatzaile batekin, garapen kapitalistaren biderei ekiten dioten herrialdeetan”. Izan ere, lanaren kontzeptua gizarteratzeko bitarteko gisa zabaldu bada ere, bai herrialde protestanteetan, bai katolikoetan, pobreak itxita edukitzeko politiken planteamenduen aldeak, politika horiek egiten ziren testuinguru sozialen eta zibilen arabera ziren. Geremeken arabera, lan behartuaren ‘lanaren bidezko zintzotze’ programa, itxuraz, industria- eta ekonomia-garapenean aurreratuak dauden zentroekin eta eskualdeekin dago lotua. Nafarroan bide horri XX. mendea ondo sartua egon zen arte heldu ez zitzaionez gero, askoz ere hobeto uler daiteke lanaren etikari buruzko interes falta erlatibo hori Iruñeko Errukietxean.

Ikuspuntu horretatik –eta Nafarroari buruz adierazi diren argudioak Estatuko gainerako lekuetara zabal daitezkeen neurrian–, espainiar gizarte-politikek gaur egun lan-txertakuntzaren eta gizarteratzearan artean egiten duten parekatzea<sup>20</sup> pentsa daitekeena baino berriagoa dela esan daiteke, eta XX. mendearen aurretik oso azaletik baizik ez zela agertzen pobreak babesteko neurrietan.

<sup>18</sup> Gracia Cárcamoren arabera, Arraquiñarren ustez txiro etxeak argudio indartsua ziren, baztertuei zuzendutako beldurraren pedagogiaren barruan. Batere lotsarik gabe, esan ohi zuen pobreak kaleetan libre ibil ez zitezen zirela espetxealdiak, halako eran non ongintzako zentroak oso bitarteko eraginkorra ziren alferren eta gaizki entretenituen zaintza egokia lortzeko, “*pues con el temor de entrar en estas casas nadie se atrevería a abandonar tan fácilmente su oficio*”.

<sup>19</sup> *Zerbitzuan* aldizkari honetan bertan, 15. zenbakian, Ramón Saizarbitoriak azpimarratzen du Vivesen ideiak bat datozela oso orokorik garai hartan Herbehereetan bizi zen egoera protoindustrialarekin, ez ordea Gaztelan (eta, hedaduraz, Nafarroan) XVIII. mendean bizi zenarekin. Bere ustez, Vivesen estiloko katoliko humanisten pentsamendua, bere alderdi politiko eta ekonomikoari dagokionez, oso ondo lotzen da kapitalismo hasi berriaren erreforma-premiekin, pentsamendu protestantea adina agian, hainbat auzi funtsezkotan behintzat, besteak beste lanaren funtzioari eta pobreen tratamenduari dagokienean. Beste gauza bat da, Amerikako egitan-dian buru-belarri murgildutako Espainia hartan, lan-merkatuaren egoeraren eta aisialdia biziagotzat hartzearen arteko kontraesanaren ondorioz, ez izatea horren garrantzitsua lanaren etikaren predikazioa.

<sup>20</sup> Nolanahi ere, parekatze hori gaur egun ez da oraindik herrialde anglosaxoiatan bezain nabarmena –arrazoi berberengatik agian–, haietan aspaldi *workfare*ak hartu baitzuen *welfare*aren lekua.



- ALCOCK, P. (1987). *Poverty and state support*. Londres, Longman.
- ALCOCK, P. (2003). *Maximum feasible participation. Lessons from previous wars on poverty*. Copenhagen, Espanet Conference, 13-15 November 2003. Tilburg, Espanet.
- BLOCK, F. Y SOMERS, M. (2003). In the shadow of Speenhamland: social policy and the old poor law, *Politics & Society*, vol. 31, nº 2, 283-323.
- CALLAHAN, W.J. (1978). Caridad, sociedad y economía en el siglo XVIII. *Moneda y crédito*, nº 146, pp. 65-77.
- CASADO, D. (1995). La pobreza y su reconceptualización. *Dialogo Filosófico*, pp. 179-185.
- CASADO, D. (1996). Eficacia y tolerancia ante la marginalidad social. El debate Soto-Robles. *Abaco*, nº 9-10, pp. 41-46.
- CLEMENT, A. (2002). L'expérience du revenu minimum en Angleterre (fin du XVIIIe-milieu du XIXe siècle). *Problèmes Economiques*, nº 2758, pp. 25-32.
- DAMON, J. (1995) *Des hommes en trop. Essai sur le vagabondage et la mendicité*. La Tour d'Aigues, Editions de l'Aube.
- DANZIGER, S.H. y otros. (1994). *Confronting poverty. Prescriptions for change*. Nueva York, Russell Sage Foundation.
- DEAR, M. y WOLCH, J. (1987) *Landscapes of despair. From deinstitutionalization to homelessness*. Princeton, Princeton University Press.
- ESTEBAN DE VEGA, M. (ed.) (1999). *Pobreza, beneficencia y política social*. Serie: Ayer, nº 25, Madrid, Marcial Pons.
- GEREMEK, B. (1989). *La piedad y la horca. Historia de la miseria y de la caridad en Europa*. Madrid, Alianza.
- GLENNERSTER, H. Y OTROS. (2004) *One hundred years of poverty and policy*. York, Joseph Rowntree Foundation.
- GONZÁLEZ, C. Y OTROS (ed.) (1999) *Marginación y exclusión social en el País Vasco*. Bilbao, Universidad del País Vasco.
- GRACIA CÁRCAMO, J. *Mendigos y vagabundos en Vizcaya (1766-1833)*. (1993). Bilbao, Universidad del País Vasco.
- GUSTAVSSON, N.S. y MACEACHRON, A.E. (1997). Poverty and child placement: a new-old idea. *Journal of Poverty*, vol. 1, nº 2.
- HATZFELD, H. (1989). *Du pauperisme a la Sécurité Sociale 1850-1940*. Nancy (FR), Presses Universitaires de Nancy.
- HERRERA, M. (1999). Los orígenes de la intervención estatal en los problemas sociales. Serie: Tesis y Praxis, Madrid, Escuela Libre Editorial.
- IBARZABAL, X. (1999). Pobreza y mendicidad en Donostia a finales del siglo XIX. Sus protagonistas. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, nº 1.
- IBÁÑEZ FERNÁNDEZ, C. (1999). Ilustración y pobreza: la actitud de los marginados ante las instituciones benéficas de Álava en el siglo XVIII. En: *Marginación y exclusión social en el País Vasco*, Bilbao, Servicio Editorial de la UPV.
- JIMÉNEZ, M. (s/a) Disposiciones legislativas sobre pobres e instituciones de asistencia social. En: *Historia de la asistencia social en España en la Edad Moderna*. Madrid, Instituto Balmes de Sociología.
- MICHIELSE, H.C.M. Y KRIEKEN, R. (1990). Policing the poor: J.L. Vives and the sixteenth-century origins of

- modern social administration. *Social Service Review*, vol. 64, nº 1.
- OFFER, J. (1989). "Desert", "need", the social theory of the poor law report of 1834, and John Stuart Mill. *International Journal of Sociology and Social Policy*, vol. 9, nº 1.
- PARIJS, P. VAN. (1994). Au-delà de la solidarité. Les fondements éthiques de l'état-providence et de son dépassement. *Futuribles*, nº 184.
- PETIT, J.G. (1999). Pobreza, beneficencia y políticas sociales en Francia (siglo XVIII-comienzos del XX). En: *Pobreza, beneficencia y política social*. Serie: Ayer, nº 25, Madrid, Marcial Pons.
- ROJO, A. (1999). *La desocupación y el trabajo. Aspectos sociales*. Buenos Aires, Dunken.
- SAIZARBITORIA, R. (1992). Juan Luis Vives y el descubrimiento de América. *Zerbitzuan*, nº 15, pags. 22-54. Vitoria, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- SANTOLARIA, F. (2003). *El gran debate sobre los pobres en el siglo XVI. Domingo de Soto y Juan de Robles 1545*. Barcelona, Ariel.
- SEMINARIO DE HISTORIA DE LA ACCIÓN SOCIAL. (1988). *De la beneficencia al bienestar social. Cuatro siglos de acción social*. Madrid, Siglo XXI.
- THANE, P. (1990). *The foundations of the welfare state. Social Policy in modern Britain*. Nueva York, Longman.
- VIVES, J.L. (1992). *Del socorro de los pobres*. Barcelona, Hacer.
- WILLIAMS, K. (1981) *From pauperism to poverty*. Londres, Routledge and Kegan Paul.
- WOOLF, S. (1989). *Los pobres en la Europa moderna*. Barcelona, Crítica.